

EXCERPTA

1. zenbakia


(sei hilabetekaria)

1986-uztaila

gaiak

orrialdeak

Tirteo.....	1
Himnermo.....	1-2
Solon.....	3-4
Jenofanes.....	5



Katulo.....	7-8-9
Martzial.....	10
Deinde-gero.....	10-11
Tibulo.....	12-13-14
Quid-zergatik.....	14-15
Definitiones, etymologiae, explicationes e Sancti Augustini scriptis depromptae....	16-24

TIRTEO
(640 K.A.)



1

Mileto-koa edo, Spartarrak auzokoen burrukan adoretu zituen.

μυθεῖσθαι τε τὰ καλὰ καὶ ἔρδειν πάντα δίκαια
μηδέ τι βουλευεῖν τῆδε πόλει <σκολιόν>

(3a D)

mintzatu gauza ederrak eta egin egoki dena; hiri honi, berriz,
ezer okerrik ez aipa.

MIMNERMO

(630 K.A.)

Kolofon-ekoa, txirularia. Bere eresien liburuari maitearen izena jarri zion: Nanno.

Gaztetasuna eta maitasuna ditu kantagai nagusi, bioi esker zaigu eder bizitza eta.

ἄλλ' ἐχθρὸς μὲν παισίν, ἀτίμαστος δὲ γυναιξίν·
οὕτως ἀργαλέον γῆρας ἔθηκε θεός.

(1 D)

gazteentzat gorrotagarri, andrazkoentzat laidagarri; horren neketsu egin bait du jainkoak zahartzaroa.

μίνυνθα δὲ γίνεταί ἥβης
καρπός, ὅσον τ' ἐπὶ γῆν κίδναται ἥελιος.

epe laburreko da gaztaroko fruitua, eguzkia lur-gain isur-
tzen den bitartekoa.

οὐ δὲ τίς ἐστίν
ἀνθρώπων, ὦ Ζεὺς μὴ κακὰ πολλὰ διδοῖ.

(2 D)

ez dago gizonik, Zeus-ek ainitz neke ematen ez dionik.

τὸ πρὶν ἑὸν κάλλιστος, ἐπὴν παραμείψεται ὥρη,
οὐδὲ πατὴρ παισὶν τίμιος οὔτε φίλος.

(3 D)

lehen ederrena izanda ere, behin adina aldatuz gero, aita be-
ra ere ez zaie umeei atsegin eta kuttun.

Τιθωνῶι μὲν ἔδωκεν ἔχειν κακὸν ἄφθιτον ὁ Ζεὺς
γῆρας, ὃ καὶ θανάτου ῥίγιον ἀργαλέου.

(4 D)

Titon-i Zeus-ek amaigabeko nekea eman zion, zahartzaroa, heri-
otza ikaragarria baino latzagoa dena.

ἄλλ' ὀλιγοχρόνιον γίνεταί ὥσπερ ὄναρ
ἥβη τιμήσσοι· τὸ δ' ἀργαλέον καὶ ἀμόρφον
γῆρας ὑπὲρ κεφαλῆς αὐτίχ' ὑπερκρέματαί,

(5 D)

oso gitxi dirau gaztaro bikainak, amets baten antzera, eta za-
hartzaro itxuragabe eta gogorra behingoan dugu buru gainean
zintzilik.

τὴν σαυτοῦ φρένα τέρπε· δυσηλεγέων δὲ πολιτέων
ἄλλος τίς σε κακῶς, ἄλλος ἄμεινον ἐρεῖ.

(7 D)

lasaitu zeure gogoashiritar barrutxarrekoak, bata gaizki, beste-
a ongi arituko dira zutaz.

Eresi trinko eta adoretuen egilea; olerkia politikaren eta
herri-hezkuntzaren zerbitzuan ipini zuen. Ondorengoek zazpi
jakitunen artekotzat hartu zuten, hau da, hitzetan eta senti-
penetan herriarentzat eredugarria. Platon-ek miresten zuen
olerkaria, filosofoa eta politikaria batera zelako.

ὄλβον μοι πρὸς θεῶν μακάρων δότε καὶ πρὸς ἀπάντων
ἀνθρώπων αἰεὶ δόξαν ἔχειν ἀγαθῆν·

jainko zorionekoei buruz emaidazue bake ona eta gizon guz-
tiei buruz izen onaren jabe izatea

χρήματα δ' ἱμείρω μὲν ἔχειν, ἀδίκως δὲ πεπᾶσθαι
οὐκ ἐθέλω· πάντως ὕστερον ἦλθε δίκη.

(1 D)

ondasunak, bai, nahi ditut; zuzenki ez bada ez, ordea: azkene-
an nola edo hala zuzentasuna gailentzen da.

εὐνοίην αὐτὸς δόξαν ἕκαστος ἔχει,

bakoitzak eritzi ederra du bere buruagatik.

Μοῖρα δὲ τοι θνητοῖσι κακὸν φέρει ἠδὲ καὶ ἐσθλόν,

Patuak bifaltzen dizkie gizonei gaizkia eta baita ona ere

πλούτου δ' οὐδὲν τέρμα πεφασμένον ἀνδράσι κείται·

(1 D)

aberaskien gurari hondogabea gizonek.

Εὐνομίη δ' εὐκοσμία καὶ ἄρτια πάντ' ἀποφαίνει

(3 D)

Zuzentasunak dena egokiro atontzen.

ἄνθρωπος δ' ὧδ' ἂν ἀριστα σὺν ἡγεμόνεσσιν ἔποιτο,

μήτε λίαν ἀνεθείς μήτε βιαζόμενος·

(5 D)

Ez lar aske, ez estu denean, orduantxe ondoen herria aginta-
riekin

οὐδ' ἂν ἄποινα διδοὺς θάνατον φύγοι οὐδέ βαρείας
 νόσους οὐδέ κακὸν γῆρας ἐπερχόμενον.

(14 D)

ordainaren truke ezin aldendu heriotza, ez eritasun larria,
 ezta zahartzaro hurbila ere.

οὐδέ μάκαρ οὐδείς πέλεται βροτός, ἀλλὰ πόνηροι
 πάντες, ὅσους θνητοὺς ἥελιος καθοραί.

(15 D)

ez dago gizon zoriontsurik, aitzitik eguzkipeko hilkor guz-
 tiak preminetan.

πάντη δ' ἀθανάτων ἀφανῆς νόος ἀνθρώποισιν.

(17 D)

hilezkorren gogoa arras ezkutua gizonentzat.


πολλὰ ψεύδονται ἄνθρωποι.

asmakeria asko olerkariak.

γηράσκω δ' αἰεὶ πολλὰ διδασκόμενος.

(21, 22 D)

zahartzuz noa etengabe ainitz gauza ikasiz.



(530 K.A.)

Kolofon-eko filosofo honen eresi bi eta beste olerki-zati-
 txo batzu gelditzen zaizkigu.

θεῶν <δὲ> προμηθεῖν αἰὲν ἔχειν ἀγαθόν.


(1 D)

Betiere on da Jaungoikoekiko ardura.

ῥώμης γὰρ ἀμείνων
 ἀνδρῶν ἢ δ' ἵππων ἡμετέρῃ σοφίῃ.
 ἀλλ' εἰκῆι μάλα τοῦτο νομίζεται, οὐ δὲ δίκαιον
 προκρίνειν ῥώμην τῆς ἀγαθῆς σοφίης.
 οὔτε γὰρ εἰ πύκτης ἀγαθὸς λαοῖσι μετεῖη
 οὔτ' εἰ πενταθλεῖν οὔτε παλαιμοσύνην,
 οὐδὲ μὲν εἰ ταχυτῆτι ποδῶν, τόπερ ἐστὶ πρότιμον,
 ῥώμης ὅσσ' ἀνδρῶν ἔργ' ἐν ἀγῶνι πέλει,
 τούνεκεν ἂν δὴ μᾶλλον ἐν εὐνομίῃ πόλις εἴη
 μικρὸν δ' ἂν τι πόλει χάρμα γένοιτ' ἐπὶ τῶι,
 εἴ τις ἀεθλεύων νικῶι Πίσσο παρ' ὄχθας
 οὐ γὰρ πιαίνει ταῦτα μυχοῦς πόλιος.

(2 D)

Ene jakituria gizonen edo zaldien indarra baino hobea
 da. Hortaz hauxe uste izaten da, ez dela egoki indarra ja-
 kintza onaren gainetik ipintzea. Herrian borrokari on bat
 badago pentatlonean edo borrokan edo oin-azkar dena, ho-
 rixe bai ederretsia, giza-adorea jokoetan ageri bait da,
 horregatik besterik gabe hiria ez dago hobeki zaindua. Ez
 du pozaldi handirik izango hiriak atletaren batek Pisa-
 ren ertzetan garaipena lortzen badu. Horrek ez bait ditu
 herriko baxterrak betetzen.



KATULO
(87 K.A.)

Jaiotza eta heriotzako urteak San Jeronimo-ren kronika bati esker dakitzagu. Verona-n jaio bide zen.

Katulo-rekin ego-a olermenaren ardatzik nabarmenena bihurtzen da. Bere buruarekiko eta hizkuntzarekiko bizitasuna, hiltzetan eta irudietan ageria.

Bere maitalearen izena "Lesbia" gezurrezkoa da, antza:

Sic sua lascivo cantata est saepe Catullo
femina, cui falsum Lesbia nomen erat (Ovidi,
Tristia, II, 427-28)

III

Lugete, o Veneres Cupidinesque
et quantumst hominum uenustiorum.
passer mortuus est meae puellae,
passer, deliciae meae puellae,

- 5 quem plus illa oculis suis amabat;
nam mellitus erat suamque norat
ipsam tam bene quam puella matrem,
nec sese a gremio illius mouebat,
sed circumsiliens modo huc modo illuc
10 ad solam dominam usque pipiabat.
qui nunc it per tenebricosum
illuc unde negant redire quemquam.
at uobis male sit, malae tenebrae
Orci, quae omnia bella deuoratis;
15 tam bellum mihi passerem abstulistis.
o factum male! o miselle passer!
tua nunc opera meae puellae
fiendo turgiduli rubent ocelli.

1.-Venus:maitasunaren eta edertasunaren jainkosa,grekoen

Cupido:maitasunaren jainkoa,grekoz Eros. Afrodita.

8.-Illius:haren/eius:bere:

14.-Orcus:grekoen Hades,lurpeko ilunpeetako buruzagi.Izen horrekin jainkoa bera edo bere erresuma aipatzen dira,hots,hildakoena.

Negar egizue,maitale ederrak,
negar egin,gizon bihotzberak oro,
nire neskatoan txoria hil da ta,
nire neskatoan txoria poz-gogo.
Maiteago zuen hark begiak baino,
atsegina zen ta neskak ama aina
ezagutzen zuen berak neskatoa.
Haren altzotik ez inoiz aldegina.



Venus
eta
Hades

Batera bestera jauzka beti ere

jabe bakarraren ondoan txioka.

Orain,berriz,bide ilunetik doa;

handik itzultzerik inork ere ez dauka.

Madarikatuak Orko-ilunpe tzararak,

eder dena iruntsi egiten duzue,

hain txori ederra neroni lapurtuz.

Hau zorigaittoa,txori dohakabe!

Orain zuregatik,orain zure erruz,

nire neskatoak begitxo samurrak

negar eta negar malkotan urturik

handituta dauzka ta gorri-gorriak.



MARTZIAL
(41-104)

Bibilis-en, gaurko Calatayud-en ondoantsu, jaioa. Errromaratu eta bertakotu egin zen, nahiz eta azkenean bere etxaldera bihurtu. "Spectaculorum liber" eta epigrama asko idatzi zituen.

Hiriko eta hiritarren ohiturak, akatsak eta bizikera bikain-ki azaltzen dizkigu bere bertsoetan: "hominem pagina nostra sapit" zioen berak. Ziri-bertsoen eredutzat hartua izan da garai guztietan.

Omnia promittis cum tota nocte bibisti;
mane nihil praestas. Pollio, mane bibe. (12, 12)

Gau gustia edan eta	Biharamonean, berriz,
edan igaro ondoren	ez duzu agindurik
aho betean dakizu	betetzen. Polio, ari
aginduak egiten.	zaitte edaten goizetik!

DEINDE=GERO

Badakigu "gero" hitzak euskaraz esangura bat baino gehiago duela. Esaterako: 1) denborazko adberbioa: orain dut, gero egingo dizut; 2) kontuz, edo: kotxea, gero!, esaten badizute lagu-


nek kalea zeharkatzerakoan, zuhur ibili beharko, badaezbada ere; 3) harridura agertzeko: Zuk bakarrik egin duzula? Bai, gero! 4) baina: ekarri liburuak! Zeintzuk, gero!; 5) eta gainera, edo antzerako zerbait; erdi ironiaz erdi dudaz. Horren antzeko kasu bat dakarkizut latinetik hartua, Martzial epigramagilearen liburu ospetsutik, hain zuzen ere:

Felicem fieri credis me, Zoile, cena? Felicem cena, Zoile, <u>deinde</u> tua?	Aricia-ko aldapa behartsu eta eskekoen bilto- kia omen.
Debet Aricino conviva recumbere clivo, quem tua felicem, Zoile, cena facit.	

(2, 19)

Zoilo, afari batek zoriontsu egiten nauela uste al duzu?
{ Afari batek zoriontsu ni, Zoilo? Eta zureak gainera?
Zure afari batek zoriontsu egiten nauela, gero, Zoilo?

Deinde hori latinez denborazko adberbioa duzu: gero.
Itzulpenera era bi horietara ongi legoke.



Bergili-ren antzera sentibera dugu olerkari hau eta bukolia-
koa joeraz. Bere hizkera guztiz bakuna eta gardena. Metrika,
bai, ekinaren ekinez landua. Erretorika neurritz daki erabiltz-
en.

Dicamus bona verba: venit Natalis ad aras:

quisquis admas, lingua, vir mulierque, fave.

Urantur pia tura focis, urantur odores,

quos teber e terra divite mittit Arabs.

5 Ipse suos Genus adsit visurus honores,
cui decorent sanctas mollia sarta comas.

Illius puro destillent tempora nardo,
atque satur libo sit madeatque mera,
adnuat et, Cornute, tibi, quodcumque rogabis.

10 En age, quid cessas? Adhuc ille: roga!
Auguror, uxoris fidos optabis amores:
iam reor hoc ipsos edidicisse deos.
Nec tibi malueris, totum quaecumque per orbem
fortis arat valido rusticus arva bove,
15 nec tibi, gemmarum quidquid felicibus Indis
nascitur, Eoi qua maris unda rubet.

Vota cadunt. Utinam strepitantibus advolet alis
flavaque coniugio vincula portet Amor,
vincula, quae maneant semper, dum tarda senectus
20 inducat rugas inficiatque comas.
Tunc veniat Natalis avis prolemque ministret,
ludat et ante tuos turba novella pedes.

5.-Genus: bakoitzak bere Genioa zeukan eta opariak egin
behar zizkion, batez ere urteurrenetan.

16.-Eous, a, um: sortaldekoa.

Onezko hitzak esan; Jaiotza da altaran.
Isil hemen guztiok, zein andra zein gizon.
Lurrinkaiak jar sutan ta lur oparotik
Arabiar leunak bidaliko atson.

Betor Jainkoa bere omena ikustera,
adats donea lore bigun-edergarriz,
bekokitik usainki leuna dariola.
Gertu opil iluna, ardaotan bustiz.

Egin dezala, Kornub, eskatzen duzuna.
Baina, hor geldi? Baietz hark, egin eskea!
Eskatu emaztean maitasun zintzoa:
Hara, Jainkoak egin kezka hau berea.



Lur zabalean lugin sendoaren idi
 indartsuek dagiten lanik ez opetsi,
 Indi aberatseko bitxirik ere ez:
 Hargatik sotaldeko itsasoa gorri.

 Atsegina egina.Etorko al da azkar,
 hegan,Maitea urrezko eztei-loturekin.
 Biraute lokarriok zahartzaro urrunak
 azala tximur eta buru-ilea urdin

 egin arterainoko guztian.Orduan
 agureen jainkoa betor.Haurrak hazi
 ta zerorren oinetan aritu dadila
 sure ondorengoan taldea jostari.

QUID-ZERGATIK

Berriz ere latin-euskaraz antzeko serbait:quid-zergatik.La-
 tinez quid galderazkoa,neutroa,zer.Adberbiotzat harturik,z-
 ergatik.Eta beste zertzelada batzu aipatzeke gelditzen di-
 renak.Jar ditzagun denak elkarren ondoan:



quid faciam.....zer egingo dut?
 quid cessas.....zer dela eta geldi?

- a) ut quid dereliquisti me.....zergatik utzi nauzu?
 zetako(Bermeo-n eta)
 - b) ut quid perditio haec.....zetako gastu hau?
 a)hor helburu-zentzua nekez ikuston da.(Mat.-27,46)
 b)hor,berriz,zegatikoaaren eta helburuaren zentzua eman li-
 tezke.(Mark.-14,4)
- quid mali.....zein gaizki?(dago edo,horretan)
 quid hominis est iste...nolako gizona dugu berau?

DEFINITIONES, ETYMOLOGIAE, EXPLICATIONES

e Sancti Augustini scriptis depromptae.

1 **ABERE**:"Et repentina quidem sive reptilia terrena, non est dubitandum quod omnes serpentes intelligi voluit; quamquam et bestiae dici possint: pecorum autem nomen non usitate serpentibus convenit. Rursum leonibus, et pardis et tigridibus, et lupis, et vulpibus, canibus etiam et simiis, atque id genus caeteris usitate convenit vocabulum bestiarum. Pecorum autem nomen his animalibus accomodatius aptari solet, quae sunt in usu hominum: sive ad iuvandis laboribus, ut boves et equi, et si qua talia; sive ad lanificum vel ad vescendum, ut oves et sues." (De Genesi ad litteram, Lib. III, II-16)

Lurreko narraz doazenak edo narraztiak, argi dago, suge guztia-
ak gogoan hartu nahi zituen; animaliak ere esan litekeen: abere izena, halere, ez zaie sugeei eman ohi. Bai, ordea, lehoiei, leopardoei, tigreei, otsoei, azeriei, zakurrei eta tximinoei. Enparauei egoki datorkie animali izena. Abere izena, aldiz, gizonak erabiltzen dituztenei egokitu ohi zaie: edo lanetan lagungarri direnei, idiei, zaldiei eta; edo artile eta janaria ateratzeko direnei, esaterako, ardiei eta zerriei.

ANIMALIA

suge.....reptilia.....narraztiak

lehoi
leopardo basapiztiak

tigre
otso.....bestia.....animali(a)

azeri pecus abere

zakur (sed non tam accomodate) piztiak

tximino

bestelakoak.....bestia.....animalia-piztiak

idi
zaldi.....pecus (accomodatius) abere ak (azienda)

gainerakoak etxabere

andi, zerri...


Gurean piztia agertzen da, latinezkoan ez bezala. Bestalde, gogoratu gure arteko eztabaida, abere-animalia. Gaur badi-rudi auzia konpondu dela: abereak eta animaliak zabal dabil-tze liburuetan, alde banatetik, baina.

2 **ABESLARI**:"Proinde quemadmodum dicuntur in arte musica, sicut ea docti homines latine dicere potuerunt, praecentor et succentor; praecentor scilicet qui vocem praemittit in cantu, succentor autem qui subsequenter canendo respondet". (Enarrationes in Psalmos, 87, 1)

Beraz, hortaz jakitun direnek latinez esan zutenez, musika gauzetan aurre-abelari eta atze-abelari esaten den bezala; abestietan lehenengo ahotsa ematen duena aurre-abelari, eta gero abestiz erantzun ohi duena atze-abelari.

3 **ADIERAZI**:"Cum loquimur, signa facimus, de quo dictum est significare". (De magistro, IV, 7)

Mintzatzean, bada, adikera batzu dagizkigu eta hortik aterada adierazi.



Jean Dubois, "Diccionario de Lingüística" Alianza Editorial, 1979.

4 **ADITZA-HITZA**:"Quid, si horum duorum ex uno appellata sunt verba, ex altero nomina; verba scilicet a verberando, nomina vero a noscendo, ut illud primum ab auribus, hoc autem secundum ab animo vocari meruerit?" (De magistro, V, 12)

Biotatik batek berba eman du, besteak izena. Berba bar-bar (dar-dar)-etik, izena izan-etik, alegia. Lehenengo hura belarritz, bigarrena gogoz hartzen dugunetik izendatzen dira.

Berez, nomina a noscendo, izenak ezagutzetik dio latinez; hitz-jokoa dago horretan, noski. Eta hori nolabait zaintzearren itzuli dut izena izan-etik (adimenean izan, jakina)

5 **ADITZ-JOKO** : "Unde non importune neque incongrue arbitrator accidisse, etsi non humana industria, iudicio fortasse divino, ut hoc verbum quod est, moritur, in latina lingua nec grammatici declinare potuerint, ea regula qua cetera talia declinantur. Namque ab eo quod est oritur, fit verbum praeteriti temporis, ortus est: et si qua similia sunt, per temporis praeteriti participia declinantur. Ab eo vero quod est moritur, si quaeramus praeteriti temporis verbum, responderi assolet, mortuus est, u littera geminata. Sic enim dicitur mortuus, quomodo fatuus, arduus, conspicuus, et si qua similia, quae non sunt praeteriti temporis, sed quoniam nomina sunt, sine tempore declinantur. Illud autem, quasi ut declinetur quod declinari non potest, pro participio praeteriti temporis ponitur nomen. Convenienter itaque factum est, ut, quemadmodum id quod significat, non potest agendo, ita ipsum verbum declinari loquendo non possit." (De Civitate Dei, XIII, II²)

Hortaz, ene ustez ez da desagokiro eta arrazoirik gabe gertatu, giza-erabakiz ez bada ere, Jaungoikoak hala nahita, agian, honako aditz hau, moritur (hiltzen da) alegia, latin hizkuntzaz gramatikalariek jokatu ezina, beste horrelakoak jokatzen diren arauz, behintzat. Oritur (sortzen da) delakotik lehenaldia ortuus est (sortua da, sortu zen) esaten da: eta beste bere antzekoak lehenaldiko partitzipioaren bidez jokatzen dira. Eta moritur horretatik, lehenaldiko adizkia atera gura badugu, mortuus est dugu erantzuna, u bikoitzez. Halantxe esaten da mortuus, eta era berean fatuus, arduus, conspicuus, eta horietarikoak; hauek ez dira lehenaldikoak, izenak dira eta aldirik gabe jokatzen dira. Jokatu ezinezkoa nolabait joka dadintzat edo, lehenaldiko partitzipioaren ordeez izena ipintzen da. Eta ondo eginda, esan gura duena egitez ezinezkoa da, bai, eta aditza bera ere elez jokatu ezina.

OHARRAK:

- 1) declinare dio denbora guztian San Agustin-ek. Baina, hemen konjugazioa da, hots, aditz-jokoa; izenena eta beste hitzena, deklinabidea da. Latinez, baina, aditza beste hitzak bezala jokatzen zen, flexioen bidez, alegia: rosa-n, amaba-n, amaba-s, eta abar. Haientzako gauza biak declinare.
- 2) aditz batzuk, deponente izenekoak, orainaldiko denboretan flexio hutsez jokatzen baziren ere, lehenaldi urruneko denboretan partitzipioaren laguntzaz egiten zuten jokoa. Era honetara:

ez deponenteakdeponenteak

ambulabat (ibiltzen zen)

moriebatur (hiltzen zen)

ambulavit (ibili zen; "zobilen", antxinako euskaraz)

mortuus est (hil zen)

(deponenteak pasibazko formak, baina zentzuna ez, noski)

3)

BIGARREN PARTEA

VERBOEN CONJUGACINOEZ

PRÆTERITO IMPERFECTO		PRÆTERITO PERFECTO	
g. Ni nintzen.	<i>Ego eram.</i>	Ni izan nintzen (izan naiz)	
Hi intzen.	<i>Tu eras.</i>	edo ni-izatu naiz (edo izatu izan naiz). <i>Ego fui.</i>	
Hura cen.	<i>ille erat.</i>		
Gu guinen.	<i>Nos eramus.</i>	Hi izan intzen, edo hi izatu izan.	
Quec cineten.	<i>Vos eratis.</i>	<i>est. Tu fuisti.</i>	
Ilee ciren.	<i>illi erant.</i>	Hura izan cen, edo hura izatu da. <i>ille fuit.</i>	

Etcheberry
Sara-koa

"Escuarazco hatsapena. Latin ikhasteco".

6 **AGIAN** : "Si enim me sciretis, et Patrem meum forsitan sciretis. Ille qui omnia scit, quando dicit forsitan, non dubitat, sed increpat. Attende enim, quomodo increpative dicatur ipsum forsitan, quod videtur esse verbum dubitationis. Sed dubitationis verbum est quando dicitur ab homine, id est dubitante quia nesciente: cum vero dicitur a Deo verbum dubitationis, cum Deum nihil utique lateat, illa dubitatione arguitur infidelitas, non opinatur divinitas. Homines enim de his rebus quas certas habent, aliquando increpative dubitant, id est, verbum dubitationis ponunt, cum corde non dubitent: velut si indigneris servo tuo et dicas: Contemnis me, considera, forsitan dominus tuus sum. Hinc et apostolus ad quosdam contemptores suos loquens ait: Puto autem, et ego Spiritum Dei habeo? Qui dicit puto, dubitare videtur; sed ille increpabat, non dubitabat. Et ipse Dominus Christus alio loco increpans infidelitatem futuram generis humani: Cum venerit, inquit, Filius hominis, putas, inveniet fidem in terra? (In Joannis Evangelium Tractatus, XXXVII, 3)

Uragutuko baninduzue, nire Aita ere ezagutuko zenukote, agian. Dena dakien Harek agian esatean ez du zalantzarik, akar egiten du. Gogoemazu nola esaten den agiraka agian hori, zalantzazko berba bide dena. Zalantzazkoa gizonak esana denean, gero; ez dakielako bait dago zalantzan. Zalantzazko berba Jaungoikoak esana denean, ostera, Jaungoikoarentzat ez dago inondiko ezkuturik eta, zalantza horren bidez sinisgabatasuna salatzen da, ez Jaungoikotasuna erizle argertzen. Gizonak ziurtzat dauzkaten gauzei buruz batzuetan akarrezko zalantzak agertzen dituzte, hots, zalantzazko berbak erabiltzen dituzte, bihotz barruan zalantzarik ez dutela. Esaterako, zure otseinarekin haserreturik esaten badiozu: Gutxietsi egiten nauzu; pentsa, gero, beharbada zure' agazaba naizela. Orobat apostoluak bere ezele batzuekiko: Neronek ere Jaungoikoaren Espiritua badut, agian. Ustez ari dena ezme; hura, ordea, agiraka ari zen, ez ezbaika. Kristok berak ere beste leku batean gizadiaren azken sinisgabatasunarekiko haserre, honotara dio: (Gizasemea, etor dadinean lurren sinisamenik arkituko ote du, gero?)

7 **AGIAN-APIKA** : "Quomodo potuerunt enim, Latini expresserunt quod Graeci dicunt ἀπα. Sic enim graeca habent exemplaria ἀπα: quia dubitantis verbum est, expressum est qui dem dubitationis verbo, quod est fortasse; sed non omnino hoc est. Possumus illud verbo dicere minus quidem latine coniuncto, sed apto ad intelligentias vestras. Quod punici dicunt, IAR, non lignum, sed quando dubitant; hoc Graeci ἀπα: hoc Latini possunt vel solent dicere, Putas, cum ita loquimur: Putas evasi hoc? Si ergo dicatur forsitan evasi, videtis quia non hoc sonat: sed quod dixi, Putas, usitate dicitur; latine non ita dicitur. Et potui illud dicere cum tractate vobis; saepe enim et verba non latina dico, ut vos intelligatis. In Scriptura autem non potuit hoc poni, quod latinum non esset; et deficiente latinitate, positum est Pro eo quod non hoc sonaret. Sic tamen intelligite dici: Putas, pertransiit anima nostra aquam sine substantia? Et quare dicunt, Putas? Quia magnitudo periculi vix facit credibile quod evasit.

(Enarrationes in Psalmos, 123, 8)

Grekoek ἀπα diotena Latinoek ahal zuten moduan esan zuten. Grekozko idazkietan ἀπα dator: zalantzan dagoenaren berba da eta, zalantzaz legezen eman zen: menturaz. Hola ez da zehatz-mehatz. Hain latin jatorra ez den berbaz esan genezake, zuek ulertzeko hobeki bait dator. Punikoek IAR diotena, ez egurra, ezbaia adierazteko baizik. Hor grekoek ἀπα Latinoek holakoetan "ala?" esan ahal eta ohi dute. Esaterako, zer itzuri natzaio, ala? Itzuri natzaio, noski, esanez gero ez da berdin. Ala hori, ordea, sarri erabiltzen da; latinez ez da horrelakorik esaten. Hura ere esan nezakeen zuekin nagoenean; askotan latinezko ez diren berbak esaten ditut zuek ulertzearen. Biblian, baina, holakorik ezin jarri, latinezkoa ez delako. Latinaren akats hori betetzeko, jakina, horren ordezen beste zentzun bat eman zaio. Halere, hau dela sinets: uraz bestaldera laguntzarik gabe igaroak garela uste al duzu, ala? Eta nondik nora ala hori? Arriskuaren handiagatik ez da erraza sinesten benetan itzuri zaiola. Horrexegatik.

fortasse { baliteke..... -tzea
 { forsitan { beharbada
 { agian

puto... { agian
 { menturaz
 { ote, (gero)?
 { al, (gero)?
 { al(gero)?
 { (al).....,ala?

ἀρα { ... ,ala?
 { ... ,ezta?

Beharbada, agian, neturaz eta ikusteko:

Trillardegi, "Euskal Gramatika"; Ediciones Vascas, 1978;

434-5 orrialdeak.

8 **AH LGUZETIDUN** : "Id enim potius verbum e verbo interpre-
 tamur, si proprie volumus dicere, quod a Graecis dicitur
 παντοκράτωρ : quod nostri non sic interpretarentur, ut om-
 nipotens dicerent, cum sit παντοκράτωρ omnitenens, nisi
 tantumde valere sentirent." (In Joannis Evangelium Trac-
 tatus; CVI, 5)

Esaera hau hitzez hitz ematen dugu, grekoek pantokrator
 zeritzatena adierazi nahi badugu: guretarrek, noski, ez zu-
 keten hola emango, ahalguztiduna, alegia, pantokrator oro-
 duena bait da, gauza bera dela ikusi ez balute.



Pantokrator: Arte bizantinoan eta
 erromanikoan Salbatzailearen i-
 rudia, jesarririk eta bedeinka-
 pena ematen ari delarik.


9 **AHALMEN** : "Satis evolutis ip-
 sis etiam vocabulis resonat,
 quod ab eo quod est velle, volun-
 tas; ab eo quod est posse, potes-
 tas nomen accepit." (De spiritu
 et littera, XXXI, 53)

Hitzak hedatzenago eta nahi-tik
 nahimen; ahal-etik ahalmen ize-
 nak sortuak dira.

Gaztelaniaz ere Unamuno-k eta voluntad-en antzera, nolun-
 tad erabiltzen bazekiten; latina ongi monperaturik zeuka-
 ten, jakina.

10 **AHO-SAPATA** : "Sed iam bifrontis simulacri interpreta-
tio proferatur. Duas cum facies ante et retro habere
dicunt, quod hiatus noster, cum os aperimus, mundo sini-
lis videatur: unde et palatum Graeci οὐρανός appellant; et non-
nulli, inquit, poetae Latini caelum vocaverunt palatum". (De
Civitate Dei, VII, 8)

Betor, bada, arpegi biko irudiaren adierazpena. Arpegi bi di-
tu, atzean eta aurrean. Gure irakiera, aho zabalik gaudenean,
munduaren antzekotsua da. Horregatik aho-sapaiari grekoek
οὐρανός esaten diote; olerkari latino batzuk, aldiz, aho-sapai-
ari zenua deitu izan diote.



Handian "muna" esaten zeion bezalaxe, soro biren arteko
altuera ezerez horri, sentimetro batzutakoari, palatu e-
saten diote Urduliz, BARRIKA aldean. (1)

Azkuak beste adierazpen hau dakar: 1º (B-a-a-r-g-o-tx), va-
llado, cerco de tierra apisonada.

Gogoratu, beste alde batetik, gaztelaniaz ere "el cielo del
paladar" esaten dela.

(1) vallatu(m)-etik, aurki.

Legezko gordailu: BI-937-86